

JARRAIPEN BATZORDEEN BILERAK - 2020

A. BATZORDE TEKNIKOAREN BILERAK

1. 2020/11/11ko bilera (*online* egin zen)

Landutako gaiak:

Pandemia dela eta, 2020. urtea urte berezia izan da eta, oro har, zenbait ekintza sakonago landu dira beste batzuen kaltetan.

Departamentu bakoitzak adierazi du zein den 2020rako plan sektorialetan sartutako ekintzen exekuzioaren egoera.

OSASUNA: Laster hedatuko da beka bat, genero-indarkeriari Nafarroako osasun sistema publikoan nola aurre egin aztertzeko; Sexu-indarkeriaren protokolo bateratuaren aurkezpenean parte hartzea, indarkeriaren gaineko lantaldean, beste autonomia-erkidego batzuekin batera.

HEZKUNTZA: 2019-2020 ikasturtea: 12 sare, sareetan sartutako ikastetxe guztiei jarraipena egin eta laguntza emateko. Gaur egun 240 ikastetxe dira. Berritasuna: Hezkuntza Bereziko ikastetxeetan ikasleekin eta irakasleekin lan egitea.

GIZARTE-INKLUSIOA, ETXEBIZITZA ETA ENPLEGUA: Ahalik eta lasterren egin beharreko jarduketak. Nabarmentzekoak dira erakundeekiko eta organismoekiko koordinazioa, prostituzioan lan egiten duten emakumezkoen muturreko zaugarritasunari berehala erantzutea, eta oinarritzko gizarte-zerbitzuekiko lankidetzaren estua.

JUSTIZIA: Emakumeentzako Arreta Zerbitzua (EAZ) Justizia Departamentura atxikitzea; hiru psikologo kontratatzea auzitegi klinikarako; sumisio kimikoaren biktimen protokoloa abian jartzea.

BARNEA: (Foruzaingoa): Karpeta berria emakumezkoen baliabideen eta eskubideen gaineko informazioarekin; genero-indarkeria kasuen jarraipen integralerako sisteman (VIOGEN) sartzea horretarako baliabideak dituzten udaltzaingo guztiak.

BERDINTASUNA: Harrera baliabideen eredu berri bat bultzatzea genero-ikusmolde feminista batekin; genero-indarkeriaren biktimei osoko arreta emateko taldeetan profil profesionalak indartzea; lanpostuak gehitzea bai harrera baliabideetan, bai prostituzioan / sexu-esplotazioan dauden emakumeendako baliabideetan.

BERDINTASUN ARLOKO DEPARTAMENTU ARTEKO BILERA

1. 2020/06/12ko bilera

Chivite lehendakariak azpimarratu ditu, COVID-19ak eragindako pandemiaren ondoriozko krisia dela eta, gizartearen zerbitzura jarri diren kontziliazio-neurriak eta departamentuek neurri horiek aurrera ateratzeko egin duten lan gaitza.

INDARKERIAREN AURKAKO 2019ko EKINTZA PLANARI JARRAIPENA EGITEKO TXOSTENARI dagokionez, Eva Isturiz Nafarroako Berdintasunerako Institutuko zuzendariak nabarmendu du 141 jarduketa egin dira, guztira, eta horretarako 3.672.158,76 euroko aurrekontua izan dela.

INDARKERIAREN AURKAKO 2020ko EKINTZA PLANAREN PROGRAMARI dagokionez, aditzera eman da, besteak beste, jarduketa hauek egin direla:

- Emakumeen aurkako genero-indarkeriaren arloko prestakuntza ematea hainbat baliabidetako profesionalei (kontuan izanik nagusiki osasun krisia).
- SKOLAE programaren pixkanako ezarpena, ebaluazioa eta jarraipena.
- Emakumeen kontrako indarkeriaren arloan Foruzaingoaren jarduketa ebaluatzean hautemandako hobekuntza-arlo gehienak programatzea.
- Harrera baliabideen eredu berria abian jar dadin bultzatzea.
- Ahduntze programak lau lurraldetan deszentralizatzea.
- Programa pilotua egitea Tafallaldean, gazterian indarkeriari aurrea hartzeko.

Departamentuetako berdintasun-unitateen ezarpena

Lau berdintasun-unitate seguruenik irailean ezartzea, hau da, berdintasuneko erdi mailako lau teknikari Osasun Departamentuan, Eskubide Sozialetako Departamentuan,

Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentuan eta Hezkuntza Departamentuan. Ibilbide orria ezarri da, 2020ko berdintasun programaren parte moduan.

Berdintasunari buruzko 17/2019 Foru Legean ezartzen da politika publiko guztietan txertatu behar dela berdintasun-printzipioa, eta hori bermatzeko beharrezkoak diren tresnak ezartzen dira programan.

Eva Isturiz zuzendariak BERDINTASUNAREN PLAN ESTRATEGIKOAREN gaineko argibideak eman zituen eta gogoratu Emakumeen eta Gizonen Berdintasunaren gaineko 17/2019 Foru Legearen hirugarren xedapen gehigarrian esaten dela Nafarroako Gobernuak urtebeteko epea duela, foru legeak indarra hartzen duenetik, 14. artikuluan aurreikusitako plan estrategikoa onesteko. Apustua da Berdintasunaren Plan Estrategikoa prestatzeko zenbait urtetarako kontratu bat egitea, 2020an eta 2021ean gauzatuko dena. 2021eko bukaeran prest izanen dugu, gero Nafarroako Parlamentuak onetsi dezan.

Genero ikuspegia duten aurrekontuei eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren berdintasun planari dagokienez, araudia betetzen saiatzen ari gara eta genero eraginari buruzko txostena prest izan nahi dugu Nafarroako Aurrekontuen Legearen proiektuari eransteko.

Funtzio Publikoko zuzendari nagusiak adierazi du 2019ko lan publikoaren eskaintzan lanpostuen % 2 gorde zirela genero indarkeriaren biktima diren emakumeendako. Berdintasuneko erdi mailako profil teknikoa sortu da eta zerrendak osatzeko probak egin dira.

Berdintasunak Suspertu planean duen presentziari buruz, kontziliazio erantzunkiderako departamentu arteko taldea eta lantalde eragilea sortu dira, zeinetan parte hartzen baitute departamentu hauek: Hezkuntza; Eskubide Sozialak; Lehendakaritza, Berdintasuna, Funtzio Publikoa eta Barnea; Garapen Ekonomikoa; eta Lurralde Kohesioa.